## OSALAN-LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA

### Izena

OSALAN, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

### IFK

Q5150010F

### Izaera

Administrazio Erakunde Autonomoa.

### Kontabilitate-araubidea

Publikoa.

### Aurrekontu-araubidea

Murriztailea.

### Sorrera

Honako honen bidez eratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-erakunde autonomo gisa: 7/1993 LEGEA, abenduaren 21ekoa, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea administrazio-erakunde autonomiadun gisa sortzeari buruzkoa.

### Sail-atxikipena

Enplegua eta Gizarte Politikak.

### JESN

8412 Osasun, hezkuntza eta kulturaren alorreko jardueren eta beste gizarte-zerbitzu batzuen arautzea, Gizarte Segurantza salbu.

### Xedea

OSALAN langileen osasunarekin zerikusia duten jarduerak kudeatzeaz, koordinatzeaz eta sustatzeaz arduratzen da. OSALANek langileak dituzten ekonomia-jarduera guztiak izango ditu jardute-eremu, herri-administrazioak barne. Era berean, lankide-kooperatibak eta gainerako kooperatibak ere izango ditu jardute-eremu, lan-bazkideei dagokienez. Norberaren konturako langileei dagokienez, OSALANek arriskuen prebentzioa sustatzeko jarduerak egingo ditu. Hitz batean, OSALANen ardura izango da prebentzioaren kultura transmititzea Europar Direktiben eta Laneko Arriskuen Prebentzio Legearen ildotik.

### Sailkapena kontabilitate nazionalean

Eskualde Administrazioko Herri Administrazioak.

### Kontseilu Nagusia

Kontseilu Nagusiari dagokio OSALANek esparru hauetan gauzatu beharreko programak onartzea: Segurtasuna, Higienea, Laneko Ingurumena eta Prestakuntza Gainera, informazioa ematen du laneko osasun-esparruko jarduera-programari buruz, eta nola gauzatzen den eta zerbitzuak nola kudeatzen diren kontrolatu eta zaintzen du. Honako hauek osatuko dute:

a) Presidentea: Gaia dela eta eskumena duen Lan eta Gizarte Segurantza Saileko buruordea.

b) Presidenteordea: Gaia dela eta eskumena duen Osasun Saileko buruordea.

c) Kontseilukideak: Sindikatuen eta sindikatu-konfederazioen aldetik, bost ordezkari. Bost horien artean Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritzarik handiena eta gutxieneko ordezkaritza duten sindikatuek eta sindikatu-konfederazioek aukeratutako ordezkariek egon beharko dute sindikatu eta konfederazio bakoitzaren ordezkaritza-mailaren arabera. Gutxieneko ordezkaritza hori langile-ordezkarien eta enpresa-batzordeetako eta herri-administrazioen zerbitzura diharduten langileei dagozkien ordezkaritza-organoetako kideen % 10 edo gehiagokoa izango da eta kontseilua osatu edo berritzen denean neurtuko da. Neurketa eta homologazioa Eusko Jaurlaritzak egingo ditu.

Enplegu-emaileen aldetik, erabili beharreko arau orokorren arabera enpresarioen erakunde-ordezkaritza duten Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-elkarteen izenean, hiru kide; beste kide bat Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko ordezkaria izango da, eta beste bat Eusko Jaurlaritzak aukeratuko du, udalen eta foru-aldundien iritzia entzun ondoren.

Kontseilu Nagusiko kideak izango dira, era berean, Osasun Saileko bi ordezkari (bietako bat Kontseiluko lehendakariordea izango da) eta Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko beste hiru ordezkari; denak ere gai honetan duten gaitasunaren arabera aukeratuko dira.

Zuzendariak Kontseilu Nagusiaren bileretan parte hartuko du, hitza izanik baina botorik gabe.

d) Idazkaria: Kontseiluak berak izendatutako pertsona bat. Izendatutako idazkaria ez bada Kontseilu Nagusiko kide moduan hartzen, hitz egiteko eskubidea baino ez du izango.

## Urteko aurrekontuak

www.euskadi.eus

## Ekitaldiko Urteko Kontuak eta Aurrekontuen Likidazioa

**1. Aurrekontuen likidazioa**

- **Aurrekontu-emaitzak**
- **Ekitaldiko diruzaintza-kontua**
- **Aurrekontu-ekitaldiko likidazio-kontua**
  - ▪Gastuen aurrekontuko kredituen aldaketak programaren arabera
  - ▪Gastuen aurrekontuaren likidazioa
    - ◦*Programen arabera*
    - ◦*Kapituluen arabera*
    - ◦*Programa eta kapituluen arabera*
    - ◦*Programa, kapitulu, artikulu eta kontzeptuen arabera*
  - ▪Gastu-aurrekontuko konpromiso-kredituen egoera eta haien erabilera
    - ◦*Konprometitutako kredituak guztira jatorri-urtearen arabera*
    - ◦*Ekitaldiko konpromiso-kredituak, programa eta kontzeptua kontuan hartuta*
  - ▪Sarreren aurrekontuaren likidazioa
    - ◦*Programen arabera*
    - ◦*Kapituluen arabera*
    - ◦*Programa eta kapituluen arabera*
    - ◦*Programa, kapitulu, artikulu eta kontzeptuen arabera*

**2. Programatutako helburuen betetze-maila**

- Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria

| | |
|---|---|
| **3. Urteko kontuak** | • Balantzea<br>• Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua<br>• Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria<br>• Diru-fluxuen egoera-orria<br>• Memoria |

## Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

| | |
|---|---|
| Aktiboa guztira | 13.987.279 € |
| Ondare garbia | 12.590.526 € |
| Aurrekontu-gastuak guztira | 10.433.160 € |
| Batez besteko langile-kopurua | 155 |

## Sozietatearen helbidea

Dinamita bidea, z.g. (Basatxu mendia) - 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia).

## Webgunea

www.osalan.euskadi.eus